

ANOETA / Idoia Sanchezek Anoetako haurrak bereganatu zituen bere ipuinekin

ANOETA. DV. Anoetako Udal Liburutegian herriko haurrek ipuinak entzuteko aukera izan zuten Idoia Sanchezen eskutik. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatu zuen ekitaldira Anoetako haur ugari hurbildu ziren. Ipuin kontalari tolosarra Loretxu bere lore-lagunarekin batera lau ipuin kontatu zizkien. Lehenengoa beldurrezkoa izan zen haurrek horrela eskatu ziotelako, "Deabrua baina azkarragoa zen sorgina" zuen izena. Ondorengo ipuinak munduko herrialde ezberdinetako kulturak gerturatu zizkieten umeei: Arabiako ipuina, Sherat eta umeak, eta Mari Puzker. Ekitaldia amaitzeko Sánchez Anoetako haurrekin jolasean aritu zen.

Udako ordutegia

Anoetako Udalak jakinarazten du urtero bezala udan liburutegiko ordutegia aldatu egingo dela. Uztailean Udal Liburutegia goizeko 11:00etatik eguerdiko 13:00ak bitartean egongo da irekita. Internet erabili nahi dutenentzat zerbitzua goizeko 9:30etan hasiko da 13:00ak arte. Abuztuan liburutegia itxita egongo da eta berriro irekiko da irailak 4ean.